

Piarres Lafitte bere eskutitzen bitartez. Euskalzaletasuna Iparraldean pizteko saiakera bat

(Piarres Lafitte through his correspondence. An attempt to promote Basquism in Iparralde)

Hernández Mata, Amelia
Pintor Losada, 24, 5, C.
48004 Bilbao

BIBLID [1137-4454 (2000), 18; 63-78]

Piarres Lafitte euskalzaletasunaren eragile nagusienetariko bat izan zen Iparraldean. Kultura lanabes bezala hartuz, euskal hizkuntza, antzerkia, abestiak, geografia, Historia eta abarren ezagupena bultzatu eta sakonarazi zuen ikasle eta lankideen artean. Horrez gain, herritarren arazo ekonomiko eta sozialez ere arduratu zen, lumaz baliatuz baserritarrei aholkuak eskeintzeko. Ekintza horietan murgildurik, Euskalzaleak taldea sortu zuen bere kideekin; partidu politikoa izatera heldu ez bazen ere, behinik behin euskal talde kultural bezala aritzea lortu zuen mende honetako 30. hamarkadako Ipar Euskal Herrian.

Giltz-Hitzak: Ipar Euskal Herria. Euskalzaletasuna. Piarres Lafitte.

Piarres Lafitte fue uno de los principales promotores del vasquismo en Iparralde. Tomando la cultura como medio para ello, fomentó entre sus alumnos y compañeros el conocimiento de la lengua, teatro, música, geografía e Historia vascas. Se preocupó también de los problemas sociales y económicos de los habitantes de la zona, valiéndose de su condición de escritor para dar consejos a los agricultores. Centrado en estas actividades, formó junto con sus compañeros el grupo Euskalzaleak, que si bien no llegó a convertirse en grupo político, sí consiguió ejercer como grupo cultural vasco en la Ipar Euskal Herria de los años treinta del presente siglo.

Palabras Clave: Ipar Euskal Herria. Vasquismo. Piarres Lafitte.

Piarres Lafitte fut l'un des principaux promoteurs du "basquisme" en Iparralde. En utilisant la culture, il encouragea, parmi ses élèves et ses compagnons, la connaissance de la langue, du théâtre, de la musique, de la géographie et de l'Histoire basques. Il se préoccupa également des problèmes sociaux et économiques des habitants de la région, en se servant de sa condition d'écrivain pour donner des conseils aux agriculteurs. Axé sur ces activités, il forma, avec ses compagnons, le groupe Euskalzaleak qui, bien qu'il n'arriva pas à devenir un groupe politique, réussit à exercer un rôle en tant que groupe culturel basque dans la Ipar Euskal Herria des années trente de ce siècle.

Mots Clés: Ipar Euskal Herria. "Basquisme". Piarres Lafitte.

0. SARRERA

Piarres Lafittek, 1901.eko maiatzaren 21ean Luhuson jaioa, euskaltasuna izan zuen ardatzetariko bat bizitzan zehar. Ithorriotseko izekoarekin bearnesa hitz eginin euskara ahaztu zue-netik –zortzi urterekin euskaldunak ziren aita-ama galdu zituen– 1944an *Herriaren* zuzendari izendatu zuten arte bide luzea kurritu zuen Lafittek. Gu euskal kulturari jadanik burua eta eragile-a zen denboretan kokatuko gara, hogeita hamargarren hamarkadan, eta, gai eta garai honen inguruan hainbat ikerlan argitaratu delarik jadanik¹, Pierre Andiazabalek² batu eta sailkaturik dituen Lafitten eskutitzetara jo dugu datu berrien bat lortzearen.

Eskutitzek 1933 eta 1936 urteen artean izan ziren idatziak. Euren edukietan gehien aipatzen diren gaiak hauek dira: Eskualzaleen Biltzarren bilkurak (1933ko irailaren 25an, 1934ko irailaren 13an eta 1935ko irailaren 12an egindakoak), Lafitte eta beste euskalzale batzuek burutu zituzten bilkurak talde bezala antolatuta baino lehen (1933ko abenduaren 3an, 1934ko martxoaren "Dimanche de Rameaux"-n eta 1934ko abenduan buruturikoak), *Aintzina* hilabetekaria (1934-1937) eta Begiraleak deituriko emakumezko talde euskalzalea (1934an eraturikoa).

Talde euskalzalea 1930. hamarkadan sortu zen Frantzian, garai baten non antiparlamentarismoa nagusitu zen politika frantziarrean, eskuindarrek osaturiko *Bloc nationalek* (1919-1924) eta ezkeriarren *Cartel de gauchek* (1924-1926) porrot egin osten. Euskalzaleak ere garaioko okerren aurka agertu ziren eta antiestatista eta antiparlamentarista bezala agertu ziren; sozialismo, komunismo eta frankmazoneriari ere kontra egin zieten³. Baina zenbait erakunde-eremu politikoa helburu hartu bazuten ere, eskutitz hauetan aipaturiko taldeek –Fédération Régionaliste Française⁴ eta Foyer d'Etudes Fédéralistes dira aipatuena⁵– kultura eremuan burutu zituzten euren ekintzak, gutxiengo herrien bizimodua, hikuntza eta kultura berezia irau-

1. APALATEGI, Jokin.: "Aintzina o el regionalismo nacional", in *Los vascos de la nación al Estado*, Elkar, 1979. ARBELBIDE, Xipri: *Pierre Lafitte, bere bizia*, Elkar, 1986; *Enbata. Abertzalegoaren historia Iparraldean*, Kutxa Fundazioa, 1996. DIHARCE, Xabier: "Piarres Lafitte apeza", *Muga* 1984. EREÑAGA, Amaia: *Marc Légasse. Un rebelde burloñ*, Txalaparta, 1997. EUSKALTZAINDIA: *Piarres Lafitte-ri omenaldia*, Bilbo, 1983. GARAI: "Entrevista al padre Lafitte", 1976, 10. zk. HARITSCHELHAR, Jean (dir.): "Hommage à Pierre Lafitte", *Bulletin du Musée Basque*, 1986. INTXAUSTI, Joseba: "Piarres Lafitte-ren oroitzapen-solasetan", *Sancho el Sabio*, 1993. JACOB, James E.: *Hills of Conflict. Basque Nationalism in France*, University of Nevada, 1994. LARRONDE, Jean Claude: "La prensa de Iparralde y la Guerra Civil", in *Comunicación. Cultura y Política durante la II República y la Guerra Civil*, II Encuentro de Historia de la Prensa, Tomo I, UPV, 1990; "Eugène Goyheneche, un militant basque dans les années 30, RIEV", 1991; *Eskualerri-zaleen Biltzarra (1932-1937). Eskualerrizaleen mugimendu abertzalearen sortzea Iparraldean*, Sabino Arana Kultur Elkargoa, 1994; *Eugène Goyheneche*, Eusko Ikaskuntza, 1994. MAIATZ: "Nor zira Piarres Lafitte?", 1981, 1. zkia. MALHERBE, Jean P.: *Le nationalisme basque en France (1933-1976)*, 3. zikloko tesia, Gizarte-Zientzien Unibertsitatea, Toulouse I, 1977. MOUNIER, Serge: *Le Père Lafitte. Entretiens souvenirs avec*, Elkar, 1992. MURUA, Imanol: "Piarres Xarritonon ekarriketa", *Jakin*, 1996. ORONOS, Michel: *L'information religieuse en basque dans les publications du Pays Basque Nord, de la fin du Concile Vatican II (8 décembre 1965) au Ve Synode Romain (29 octobre 1977). Questions pour une Histoire future*, Université de Bordeaux III, 1982, 55-87. orr. SAN SEBASTIAN, Koldo: "El nacionalismo en el País Vasco continental (1933-1963)", *Muga*, 1984, 35. zkia., XARRITON, Piarres.: "Piarres Lafitte zenaren pentsabideak", *Jakin*, 1986, apirila-ekaina; *Xabier Diharce "Iratzeder"*, Eusko Ikaskuntza, 1994.

2. Pierre Andiazabalek irakasle izan zuen Pierre Lafitte Ustaritzeko Apaizgategi Txikian.

3. LARRONDE, Jean Claude.: *Le nationalisme basque en France...*, aipatu liburua, 71. or.

4. "Le Fédération Régionaliste Française (FRF), Jean Charles-Brunena eta "L'action Régionaliste" aldizkaria argitaratzen zuen: oso mugimendu moderatua zen, ezta ausarta ere, eta batzutan "folklore"keria hutsean erortzen zen", Larronde, J. C.: *Le nationalisme basque en France...*, aipatu liburua, 187. or.

5. "Egitarau hau (Foyer d'Etudes Fédéralistes FEF-en egitarauaz ari da) Frantziako Gutxiengo Nazionalisten Batzorde Nagusiaren (CCMNF) ildo politikoari zetxekion; Quimperen sortu zuten, 1927ko irailaren 12an, Britainia, Alsazia-Lorraine eta Kortsikako ordezkariak, eta "gutxiengo nazionalen" ekintza kontzertatuaren alde zegoen, baina –erakunde hertsiki politiko honen aldean– FEFren ekintza-eremua kultur arazoei buruz askoz haratago heltzen zen", Larronde, J. C.: *Le nationalisme basque en France...*, aipatu liburua, 188. or.

narazteko helburuarekin. Euskalzaletak kaleratu zuten egitarauan euskal politika eta ekonomia kontutan hartu zuten⁶, Frantziako politika zentralista eta bateratzalaitik bereizteko nahia erakutsiz; hala ere, ekintzak burutu orduko arlo kulturala izan zen gehien landu zutena. Aipatu taldeek aldizkariak argitaratzen zituztuen euren ideiak aditzera emateko; euskalzaletak *Aintzina. Trait d'Union Mensuel des régionalistes basque-français* kaleratu zuten. Horrez gain, euskal kulturaren inguruan buruturiko ospakizunez baliatu ziren euskalzaletak mugimenduaren propaganda egiteko, bereziki Eskualzaleten Biltzarrak egiten zituen bilerez.

Azkenez, eskutitzak nork bialtzen eta nork jasotzen zituen kontutan hartzea ere garrantzitsua da. Piarres Lafitte kultur talde baten burua izan zen neurrian, eragina izan zuen gidatzen zuen lan taldearen partaideengan; lankideekin batera sare bat osatu zuen. Ditugun gutunek argibideak eskeiniko dizkigute nortzuk ziren taldearen eragileak jakiteko, nortzuk aritu ziren gogotsu buruturiko ekintzetan, nortzuk utzi zioten parte hartzeari, etab. Ikusiko dugu ere kide batzuek taldea uzteko beharturik ikusi zutela euren burua, polizia frantziarrak mesfidantzaz begiratzen baitzituen euskalzaleten bilerak –aipatu dugu taldea antiestatista eta eta antiparlamentarista bezala agertu zela– eta partaide batzuk zelatzeari ekin baitzion.

1. EUSKALZALEEN BILTZARRA

1870ko Napoleon III.aren ejerzitoaren suntsipenak Frantziako II. Inperioaren amaiera eta III. Errepublikarako bidea prestatu zituen. 1877an Errepublika ezarri ostean, lege-proiektu batzuk onartu zituzten, Errepublikari finkotasun ideologikoa emango zionak: biltzeko askatasuna (1881), prentsa askatasuna (1881), irakaskuntza laiko dohainik eta derrigorrezkoa (1882), sufragio unibertsala herri-kontseiluak aukeratzeko (1884), dibortzio legea (1884), etab. Elizgizonak –Errepublikaren berrikuntzen kontrakoak– eskontza zibilia zein dibortzioa arautzen zituzten legeen kontra agertu ziren, Elizari kendu ziotelako familia-eskubideen eremuan zeukan nagusigoa.

Frantzian indar politiko zetro-ezkertiarrek nagusitu ziren bitartean, Ipar Euskal Herrian buruturiko hauteskunde legislatiboetan eskuindarrak irabazi zuen batzutan eta zentroak bes-tetan. Erregezaleek eta bopapartistek osatzen zuten eskuindarra; zentro eta ezkertiarrek, ostera, talde errepublikazalearen partaideak ziren.

1902an Eskualzaleten Biltzarra sortu zuen euskalzaletaldek batek, “des basquistes”⁷. Orduko hirigintza eta industrializazioaz gain, garaiko politikak ekarritako aldakuntzek eragin zuten talde berriaren sorkuntza.

Eskualzaleten Biltzarraren partaideen kopuru handiena burgesiak osatu zuen. Bere helburua tokiko buruzagi bezala irautzea zen; kontra egin zion modernizazioak ekarritako berrikuntzei, aldakuntza kaltegarriak ekarriko lituzketelako euskal gizartearen antolakuntzan. Horrela, apaizteriaren languntzarekin –apaizak Errepublikak ekarritako berrikuntzen kontra zeuden–, burgesia antzineko euskal ezaugarriez baliatzen saiatu zen Antzineko Erregimenaren ideia kontserbakorrak bultzatzeko. Euskara zaintzeari ekin zioten, era sentimental batez, eta euskal kultura mito bihurtu zuten, iraganeko eduki eta lekukoa balitz bezala. Iraganaren goraiatze honekin, pentsakera politikoki atzerakoia nagusitu zen Eskualzaleten Biltzarraren partaideen artean, euskal politika eta gizarte mailan suertatzen ari

6. *Euskal herriaren alde. Court commentaire du programme eskualeriste à l'usage des militants*, J.E.L., Baiona, Imprimerie La presse, 1933.

7. GOIHENETXE, Manex: “Idéologies culturelles et espace social en Pays Basque de France à la veille de la première guerre mondiale”, *La production social des espaces*, C.N.R.S., 81. or.

zen isladapena zena, bide batez. Orokorrean, Eskualzaleen Biltzarra Frantzia eta Elizaren esanetara zegoen euskalzale talde batek osatu zuen, "euskaldun fededun" leinari kutsu kontserbakor batez jarraitu ziona⁸.

Goian aipaturiko gutunetara mugatuz, Eskualzaleen Biltzarraren hiru deialdien berri ematen digute:

1933ko irailaren 25ean Luhuson burututakoan pozik agertu zen Casabonne lortutako emaitzekin: "Je suis rentré enchanté du travail fait à Louhossoa pour notre Eskual-Herria"⁹.

1934ko bilera Donibane Lohitzunen egin zuten, irailaren 13an; Pierre Amoçain ezkor agertu zen lortutako harpidetzen kopuruarekin:

"Nous n'avons fait hier que 132 abonnements et totalisons à qq chose près 720 f. Je n'ai encore fait le compte exact. J'aurais crus que les 200 étaient atteints mais hélas!... nous continuons... Il semblait que tout le monde souscrivait mais en fait la moitié nous ont échappé. Et effet il y avait quelques tables où personne ne voulait rien savoir"¹⁰.

Batzarra egin zuten eta hurrengo egunean Olphe Galliardekin topo egin zuen Amoçainek; begirunez hitz egin zion Amoçainek Lafitteri Olphe Galliard abokatuari buruz:

"Comme vers 12h je passais rue Thiers plongé dans un journal Me. O. G. m'a arrêté pour me demander si j'aurai l'occasion de vous voir aujourd'hui, J'ai immédiatement répondu que oui. Me. O.G. voudrait vous voir demain. Il sera au bureau dès 2h 1/2 mais doit donner jusqu'à 4h 1/2 une repêt de droit, a un recalé.. A parti de 4h 1/2 il se tient a vos disposition. Si vous ne pouviez venir il tient absolument à ce que vous lui téléphoniez et cela dès 2h 1/2 si vous voulez. Plus aimable que jamais il m'a demandé des nouvelles de la journée d'hier et à cette occasion j'ai lui ai passé le trac *Aintzina*. Il est effrayé et me disait vous entreprenez trop... A la fin eux sont toujours les mêmes qui travaillent dans toutes les oeuvres et qui sont écrasés de travail... Pour le moment nous pouvons constater que ce que nous avons entrepris ne lui aura pas encore donné beaucoup de ... de tête!"¹¹.

Eugène Goyhenechek *Aintzina* jaso zuen Eskualzaleen Biltzarraren Pariseko atalean:

"Nous avons reçu à l'Eskualzaleen Biltzarra les numeros de propagande. J'ai été chargé de m'en occuper et jeudi à la réunion des étudiants je recueillerai des abonnements. J'espere avoir... à te demander de nouveaux bulletins. Ici il y a beaucoup de monde à abonner"¹².

1935ko irailaren 12an Eskualzaleen Biltzarra Atarratzen¹³ bildu zen; Olphe Galliard baikor agertu zen emaitzekin:

8. "Le discours d'Eskualzaleen Biltzarra est la juxtaposition, sinon la synthèse, d'opinions complexes qui prétendent défendre à la fois la politique française et la pensée basque(isante). Il est influencé à la fois par le moralisme réactionnaire ambiant et par le républicanisme français qui reste jacobin et centralisateur, tandis que la droite française l'enferme dans le provincialisme. C'est vrai que le centralisme et le nationalisme français conquérants ne permettaient pas d'autre exutoire à la conscience de l'identité basque", GOIHENTXE, Manex, aipatu artikula, 89. or.

9. Jean Pierre Casabonnek Amoçaini bidalitako postal-txartela, Donazaharre, 1933ko apirilaren 25ean. Eskualzaleen Biltzarraren berri eman zuen Felipe de Tolosak Donostiako *El Dian*: "Berandu xamar ere ara emen izparringietan Luoso'ko jaialdia", Felipe de Tolosak Jean Pierre Casabonni idatzitako eskutitza, Gasteiz.

10. Pierre Amoçainek Lafitteri idatzitako gutuna, Baiona, irailaren 14an.

11. Ibidem.

12. Eugène Goyhenechek Pierre Amoçaini idatzitako eskutitza, Paris, 1934ko abenduaren 3an.

13. Atarratzen talde euskalzalearen adar bat osatzeko asmoa zuten eta horretarako Jean Hastoy propaganda egiteko prest agertu zen, Jacques Mestelanek Ustaritzetik Pierre Amoçaini idatzi zion eskutitz baten ikus daitekenaren arabera; Jean Hastoy Jacques Mestelanen kidea zen Baionako Saint-Louis de Gonzague ikastetxean eta Mestelanen bidez sartu zen talde euskalzalean.

Piarres Lafitte bere eskutitzen bitartez. Euskalzaletasuna Iparraldean pizteko saiakera bat

“*La Presse* nous donnait hier un compte-rendu auquel il me semble, je ne vais à dire vrai pourquoi, que votre plume ne soit pas étrangère. Le succès a été complet et le nombre des participants laisse à penser ce qu'il eût été dans le cas où le soleil se fut mis de la partie. C'est le couronnement de tous nos efforts poursuivis sans relâche, et je m'en rejouis grandement”¹⁴.

Bertan intsigniak ere saldu zituzten:

“Soit, en tout, 35 insignes... Mais il me les faudrait très vite, très vite. Tu pense! Ces insignes-là, les 3/4 au moins, sont vendus par moi, depuis le 12 Septembre, à l'Eskualzaleen Biltzarra”¹⁵.

Gizonezko eta emakumezko intsigniak egin zituzten Iparraldeko euskalzaletak eta jende askok bat edukitzea nahi izan zuen, eskutitz hauek erakusten dutenaren arabera.

2. IPARRALDEKO EUSKALZALEEN BILERAK

Gutunek Iparraldeko euskalzaleen hiru batzarren berri ematen digute: 1933ko abenduaren 3an egindakoa, 1934ko martxoaren ‘Dimanche de Rameaux’ egunean eta 1934ko abenduan. Lafitten inguruan apez, apezgai eta gazte batzuk bildu ziren –Unibertsitateko ikasleak, mediku, abokatu eta irakasleak– Lafitten mugimendu euskalzalea osatzeko proiektuak erakarririk; Piarres Xarritonek dioenez, Lafittek jendeaurrean botatzen zituen ideiak, sondeo bezala, bazekielako entzule guztiak ez zirela abertzaleak; horrela, zuhurtziaz jokatzeko, irakaslearen proposamenak harrapatzen zituena berarengana hurbiltzen baitzen¹⁶.

2.1. Lehenengo bilera

Lehenengo batzarrerako Chapelet jauna, André Ospital, Felix Ospital bere anai eta Arocena jauna izan ziren gonbidatuak. Chapeletek, hasieran, mesfidantzaz begiratzen zuen euskalzaleen mugimendua, baina, berak diotenaren arabera¹⁷, Piarres Lafitte eta Philippe Arantarekin (Apaizgaitegi Txikiko irakasleak biak) izandako elkarrizketek lagundurik, hobeto ulertu zuen Lafitten asmoak eta biltzarrera joango zela baieztatu zuen. André eta Felix Ospitalek ere han egongo zirela esan zuten¹⁸, Arocenak ezin zuela adierazi zuen bitartean:

“J'aurais volontiers pris part à votre réunion du 3 décembre; malheureusement et, malgré le caractère familial qu'elle revêtira, je ne puis me rendre à ton amicale invitation: il se trouverait toujours quelqu'un aussi bien là qu'ici pour me dire que ma place est à la maison pendant au moins quelque temps... Depuis que mon pauvre père est mort...”¹⁹.

Badirudi egunkariren batek bilera honen berri eman zuela eta Michel Diharceck, ‘Pinchin’, artikulua jaso zuen arrebak bidalirik²⁰. Batzar honen ondorioz André Ospitalek arazoak izan zituen, Amoçaini idatzi zion eskutitzaren arabera:

14. Olphe Galliardek Lafitteri idatzitako gutuna, 1935ko irailaren 15ean.

15. Jean Hastoyk idatzitako gutuna, 1935ko urriaren 5ean. Intsigniok Luzaiden bizi zen Feliciano de Sétoain emakumearen bidez lortzen zituzten: “Sétoain a-t-il rapporté les insignes? Si oui ne pourriez-vous me les faire tenir à l'occasion?”, Pierre Amoçainek idatzitako eskutitza, 1934ko urtarrilaren 9an.

16. Pierre Xarritonekin izandako elkarrizketa, Baiona, 1996ko uztailaren 6an.

17. Chapeletek idatzitako eskutitza, Kanbo, 1933ko irailaren 25ean.

18. André Ospitalek bidalitako eskutitza, Aldudes, azaroaren 21ean.

19. Arocenak idatzitako gutuna, Larresoro, 1933ko azaroaren 24an.

20. Michel Diharceck idatzitako eskutitza, Paris, 1933ko abenduaren 8an. Aipatu arrebak Mayi Diharce zela iruditzen zaigu, zeukan bigarren arrebak 9 urte baino ez zituelako ordurako. Eskutitz honetan Michelek Pariseko Massillon eskolan zegoela adierazten zuen, nongo zaindaria Pierre bere anai zen; Xabier Diharce ‘Iratzeder’ 13 urte baino ez zuen 1933an.

“J'ai l'immense regret de te dire qu'à cause de certaines oppositions dont je te parlerai moi même, je suis réduit à faire une propagande de peu discrète. Moi qui avait si bien commencé à en faire, j'en éprouve un vif dépit. Je t'expliquerai ça la prochaine fois que je te verrai. Je suis toujours des vôtres et je vous aiderai de toutes mes forces mais il ne faudra pas que je me fasse trop voir”²¹.

2.2. Bigarren bilera

Bigarren bilerarako Félix Ospital, Maurice Olphe Galliard, Blainville eta Bernard de Coral²² izan ziren gonbidatuak. Félix Ospitalek gustura hartuko zuen parte baina ez zela joango esan zion Lafitteri, horrelako batzar batean parte hartzeak ez zielako komeni ez berari ezta bere familiari ere²³; hala ere, langile sutsua izaten jarraituko zuela ziurtatu zion. Maurice Olphe Galliardek, bere aldetik, goizegi ikusten zuen bilera publiko bat egitea; egokiago ikusten zuen batzar pribatu bat taldearen oinarriak eta helburuak zehazteko:

“Je estime prématurée une réunion publique. Si votre mouvement se bornait à la prédiction du programme publié, avec pour seuls apôtres les neuf jeunes gens formés à votre enseignement, ce sera parfait. Mais alors notre collaboration ne se justifiait pas”²⁴.

Blainvillek Olphe Galliard bere lagunak esandakoarekin ados agertu zen eta batzarrera ez zela joango adierazi zion Lafitteri:

“Je ne (...) donc pour ma part que vous confirmer les termes de la lettre de mon ami Olphe Galliard avec lequel je suis, vous le savez, en parfait communion d'idées”²⁵.

Badago Olphe Galliarden beste eskutitz bat, bilera ospatu baino lehen, zeinean ikusten den Lafittek batzar pribatua egitea erabaki zuela²⁶. Azken erabaki honen ondorioa izan daiteke Galliarden bileran hitz egiteko asmoa:

“Mon ami Mr. Blainville vous verra demain. J'aurais grandement désiré une dernière entrevue avec vous avant dimanche. Nous en tirerions profit peut-être l'un de l'autre. Il n'est pas impossible que j'accepte de prendre la parole à votre réunion mais ce sera pure improvisation. Je vous demande donc loyalement de ne faire allusion ni de près ni le loin à mon intervention avant la dite réunion: que cela reste confidentiel entre nous. J'en ai seulement dit un mot à mon ami Blainville”²⁷.

Bilera eginda zegoen 1934ko martxoaren 28rako; pribatua izan arren batzarraren berri jaso zuen Olphe-Galliardek *La Presse* egunkarian eta, publikotasunaz pozik agertu ez bazen

21. André Ospitalek Amoçaini idatzitako eskutitza, 1933ko abenduan.

22. Bernard de Corral Fédération d'Action Populaire du Pays Basque (F.A.P.P.B.)-ko idazkari nagusia zen; Maurice Olphe Galliard eta Blainville ere talde horretako partaidea izan ziren Lafitterekin elkartu baino lehen. Badago Eugène Goyhenecheren eskutitz bat non harrituta eta kezuz adierazten zuen ia desagerturik zegoen F.A.P.P.B.-ri buruz berriro hitz egiten hasi zela egunkarietan; Eugène Goyhenechek idatzitako eskutitza, Paris, 1934ko maiatzaren 26an.

23. Felix Ospitalek idatzitako eskutitza, Donibane Lohitzune, 1934ko martxoaren 16an (Pierre Lafitteri zuzenduriko eskutitza dela suposa genezake, zeren eta “Cher Monsieur l'Abbé” esanez hasten baita). Eskutitz honetan Félix Ospitalek adierazi zuen arazoak edukiko zituela jendeaurrean euskalzale bezala agertzekotan, aurreko urtean André bere anaiak agertu zuen gauza bera (André Ospitalek Amoçaini idatzitako eskutitza, 1933ko abenduan).

24. Olphe Galliardek Pierre Lafitteri idatzitako eskutitza, 1934ko martxoaren 20an.

25. Blainvillek Lafitteri idatzitako gutuna, Getaria, 1934ko martxoaren 24an.

26. Olphe Galliardek Lafitteri bidalitako eskutitza, 1934ko martxoaren 24an.

27. Olphe Galliardek Lafitteri zuzenduriko eskutitza, datarik gabe.

ere –"Je ne pense pas du tout que 'notre' mouvement profite d'une telle publicité prématurée. Plus tard ce sera différent"²⁸–, emankor ikusi zuen elkartzte hori.

2.3. Hirugarren bilera

1934ko abenduan talde euskalzaleak burutu zuen hirugarren batzarretara Chapelet, Pierre Héguy eta Mendiboure izan ziren deituak. Pierre Amoçainek²⁹ bidali zien gonbidapena: Chapeletek ezin zuen joan familiarekin afaldu behar zuelako³⁰, Pierre Héguyk ere ez zuen parte hartuko: "Je ne pourrai malheureusement être des vôtres dimanche et je ne vois pas une femme à Ossès qui ait des idées politiques ou sociales"³¹; Mendibourek baietz esan zion³².

Talde euskalzalearen batzar horiek mugimenduaren xedeak eta ekintzei buruz hitz egieta zuten helburu, eguneroko solasaldietan eta eskutizetan sortzen ziren ideiak eztabaidatuz. Jean Pierre Casabonnen ustez, adibidez, Iparraldearen eta Hegoaldearen arteko batasuna bilatu behar zuten: "sans aller contre l'étatisme, se serait favoriser le régionalisme, quoique toute fois nous puissions faire un état avec nos 'zazpiak bat'³³. Izan ere, André eta Félix Ospital Donostia eta Baztango abertzaleekin egon ziren hauteskundeak prestatzen ari zirenean eta mirespenez kontatzen zuten han ikusitako talde-lana: "Dans chaque 'Euzko-Etxia' les 'abertzaliak' travaillaient activement, ainsi que les 'Emakumiak'³⁴, eta Eugène Goyhenechek parte hartu zuen Hegoaldeko mitinen baten, eskutitz batek adierazten digunaren arabera: "Supongo que en la redacción de *Aintzina* estará Goyheneche, joven de grandes esperanzas para los vascos. Le he oído hablar en Mungia con Mendiguren"³⁵. Hegoaldeko Eusko Gaztedija, bere aldetik, Iparraldean egon zen bidaia bat egiten³⁶. Hala ere, hasierako pausu hauek ez dute esan nahi erlazio estuak egon zirenik Ipar eta Hegoaldeko euskalzaleen artean, egoera sozio politikoa desberdina baitzen –Hegoaldea

28. Olphe Galliardek Lafitteri idatzitako gutuna, 1934ko martxoaren 28an.

29. 1935 urtearen hasieran Pierre Amoçain Txilera joan zen, bere ekintzak talde euskalzalean zirela eta, arazoak izan baitzituen polizia frantziarrarekin. Bidaia hori iragarri ziguten eskutitz batzuk: "J'ai appris que tu ne partais pas pour le Chili avant la Noël. Je suis très content car ainsi je pourrait te voir", Eugène Goyhenechek Amoçaini bidalitako eskutitza, Paris, 1934ko abenduaren 3an; "Je regrette vivement ton départ de cet Euskal Herria magnifique où tu étais appelé à jouer un rôle à la fois ingrat et difficile", G. Mendibourek Amoçaini bidalitako gutuna, Baiona, 1934ko abenduaren 20an; "Maintenant cet excellent collaborateur vogue sur les mers et son départ vous donne bien du travail en surcroît. Comment pourrez-vous même faire face à tant d'ouvrage divers?", Maurice Olphe Galliardek Lafitteri bidalitako eskutitza, 1935ko urtarrilaren 1ean. Txilera joan eta gero artikulu bat argitaratu zuten *Aintzina*n Amoçainen omenez, baina Amoçaini ez zitzaion gustatu artikulu hori: "Je passe sur un article qui a été écrit sur mon compte par une personne dont je ne veux pas savoir le nom.. On aurait pu me demander mon avis... Comme oraison funebre ce ne serait pas trop mal mais un journal sérieux doit s'abstenir d'une telle reclame. On jurerait qu'elle a été payée", Amoçainek Lafitteri bidalitako gutuna, Santiago de Chile, 1935ko apirilaren 20an hasi eta 1935ko uztailaren 2an amaitutakoa.

30. Chapeletek Pierre Amoçaini bidalitako eskutitza, Baiona, 1934ko urriaren 20an.

31. Pierre Héguyk Pierre Amoçaini idatzitako gutuna, Ossès, 1934ko abenduaren 20an.

32. G. Mendibourek Amoçaini bidalitako eskutitza, Baiona, 1934ko abenduaren 20an.

33. Jean Pierre Casabonnek Amoçaini idatzitako eskutitza, Donazaharre, 1933ko apirilaren 25ean.

34. André Ospitalek idatzitako eskutitza, Aldudes, azaroaren 21an.

35. J. Abandok idatzitako eskutitza, Londres, 1934ko abenduan.

36. Eugène Goyhenechek bidalitako gutuna, Paris, 1934ko maiatzaren 26an.

askoz aurrerago zihoan, Frantzian eskubide politikoak zentralizatuago zeuden bitartean³⁷-, eta are gutxiago 1936ko uztailean Espainiako gerra piztu zenean³⁸.

Mugimenduaren batzarretan landutako ideiekin jarraituz, eta Iparraldera mugatuz gero, Felix Ospitalek beharrezko ikusten zuen eskuindarraren batasuna bilatzea, hau da, joera politiko berdintsuak zutenen begikotasuna zaintzea euskalzaileak ez izan arren; hori adierazi zion esku-titz batez Piarres Lafitteri, non partidu hitza erabili zuen euskalzaileen mugimendua aipatzeko³⁹:

“Je crois que notre programme repond aux aspirations et ... des basques proprement dits, mais je crains qu'il ne satisfasse pas entierelement aux qui, sans être basques, ont cependant un idéal politique semblable au nôtre et que sont comme l'on dit: churiak; ne pensez-vous pas qu'il serait souhaitable que nous concilions notre point de vue avec le leur, afin de pouvoir collaborer et travailler ensemble à la réalisation d'un but commun. Il me semble que nous pourrions y arriver et que nous éviterions ainsi une division des forces de droite. Nous pourrions aussi de ce fait nous assurer des concours et collaborations précieux. Ne manquez-vous pas que la qualité de sympathisants en semble être une marque de protection de notre parti, et que nous pourrions les placer sur le même pied d'égalité que nous-mêmes, vis à vis du problème. Cette question ne doit guère se poser que pour Bayonne, Biarritz et St. Jean de Luz, je pense, car dans les villages à peu près tout le monde pourrait se rallier du pogramme actuel. Je crois qu'après cela, nous aurions plus de chances de réussite.., ici au moins”⁴⁰.

Batzar hauetan ateratako ondorioekin *Eskual Herriaren Alde*⁴¹ liburuxka argitaratu zuten 1933an eta urte bat beranduago, 1934ko urrian, *Aintzina. Trait d'union mensuel des Régionalistes basques-françaises* aldizkaria, euskalzaileen xedeak ezagutarazteko.

3. AINTZINA

Esan dugun bezala, *Aintzina* aldizkariaren lehenengo zenbakia 1934ko urrian kaleratu zuten. Bi inprimategiri eskatu zieten aurrekontua: *La Presse du Sud-Ouest*-ri eta “J. Dargains Imprimerie-Papelerie”-ri. Lehenengoak 800 libera kobratuko zieten 500 aleko argitalpenagai-

37. Jean Biataranak Lafitteri zuzenduriko eskutitza, Baiona, 1937ko urtarrilaren 16an.

38. Badaude eskutitzak non Espainiako gerra aipatzen den: Eugène Goyhenechek Lafitteri hitz egiten zion José de Ariztimuño *Aitzolen* heriotzaz: “J'ai lu le récit de l'assassinat de plusieurs prêtres dans des documents confidentiels dont une partie sera publié, j'espere. Dire que c'est du nom de l'ordre de la Religion que ces crimes sont commis! Heureusement que si certains les trouvent legitimes, il est des catholiques pour protester et s'indigner contre de telles horreurs! Je vous signale à ce sujet un article, que vous aurez sans doute lu, dans *Esprit*, Semprun et Gurrea”, E. Goyhenechek Lafitteri bidalitako eskutitza, Paris, 1936ko azaroaren 19an. Bestetik, Yves Delaportek, Parti National Bretoneko arduraduna, Bretainiara joandako errefuxiatuen berri eman zion Lafitteri: “Vous n'ignorez pas qu'un grand nombre de réfugiés basques ont été accueillis en Bretagne et qu'ils ont été séparés en de nombreuses colonies. Toutes ne sont pas également intéressantes et je regrette vivement que l'on n'ait pas envoyé uniquement des nationalistes basques en Bretagne, et réservé les 'marxistes' pour la France du 'Front Populaire'. Quoi qu'il en soit, on me signale, aux environs de Châteaux Lin, une colonie de basques catholiques et nationalistes qui sont au plus haut point digne d'intéret. Comme ils ne savent pas le français, ils ne peuvent se distraire dans leur exil par des lectures, car ils ne reçoivent aucun organe en basque ou en espagnol”, Yves Delaportek Lafitteri bidalitako gutuna, Château Lin, 1937ko abuztuaren 1an.

39. Izan ere, horrela aurkeztu zuten mugimendu euskalzailea *Aintzina* hilabetekarian: “Les Eskuallerristes sont de jeunes basques-françaises décidés à répandre leurs idées politiques et surtout à s'organiser pour le travail méthodique sur le terrain électoral”, “Où en sont les Eskuallerristes?”, *Aintzina*, 1934ko urrian.

40. Felix Ospitalek Lafitteri idatzitako gutuna, Donibane Lohitzune, 1934ko martxoaren 20an.

41. *Eskual Herriaren Alde*, J.E.L., Baiona, La Presse, 1933.

tik, ale bakoitza 8 orrikoa, bat publizitaterako eta bitan tolestuta, *La Presse*k zuen formato eta paperarekin eta lau zutabetan idatzita⁴²; Dargainsek, bere aldetik, hiru eredutarako kalkulua egin zuen, bat 340 liberatakoa 500 aletako eta bigarren eta hirugarrena 290 liberatakoa 500 aletako, lerroartekoaren arabera⁴³. Azkenean, Donibane Lohitzuneko Dargainsten etxean argitaratzea erabaki zuten, hamabostekaria⁴⁴ izango zen *Aintzina. Trait d'union mensuel des régionalistes basques-français*. Jean Dubosq gerente izendatu zuten eta honek Charles Hiribarreni, dokumentu batez, baimena eman zion gerentearen ordezkari fardelak Postetxetik eramateko, diru igorpenak jasotzeko, aurrezki kutxa edonolako operazioak egiteko eta erre-gistroak eta agiriak sinatzeko⁴⁵.

Pierre Narbaizen⁴⁶ ustez *Aintzina*k bete behar zituen helburuak hauexek ziren:

"1^o. Rendre service aux Vicaires. 2^o. Rendre par le fait même le journal plus 'désirable'. 3^o. Susciter quelques bonnes volontés pour obtenir un lot important de chansons harmonisables"⁴⁷.

Aldizkarian argitaratzeko harmonizazio bat hilabetero bidaliko zuela esan zion:

"si personne n'entend l'appel, vous pouvez cependant compter sur moi pour boucher les trous: je ne reculerai pas devant une harmonisation par mois. J'espère cependant qu'on ne me laissera pas seul: pourquoi les autres aimaient-ils peu, puisque j'os? Il s'agit du reste d'harmonisations très simples, comme elles conviennent à une musique populaire"⁴⁸.

Aldizkaria saltzeko egin zuten propaganda handia izan zen⁴⁹, Camille Dargainsi galdetu zitotenaren arabera: "Certains personnes se demandent qui sont les expéditeurs benevoles

42. *La Presse du Sud-Ouest*ek Pierre Lafitteri bidalitako eskutitza, Baiona, 1934ko maiatzaren 29an.

43. Fabien Dargainsek idatzitako eskutitza, Donibane Lohitzune, 1934ko ekainaren 10ean.

44. Hilabetekaria izan zen azkenean.

45. "Procuration pour autoriser à effectuer des opérations postales, Télégraphiques et téléphoniques", Jean Dubosqek eta Charles Hiribarrenekin sinaturikoa, 1934ko abenduaren 22an. 1935 urtearen amaieran Charles Hiribarren talde euskalzaletak utzi zuen Plontevoyra joaeko; bidai horren berri eskeintzen digute eskutitz batzuek: "Puisque ce pauvre Charlot nous quite, c'est à toi que je m'adresse... A propos, tu lui transmettras mon meilleur souvenir, avec tous mes vœux pour la nouvelle vie qui s'ouvre pour lui", Jean Hastoyk idatzitako eskutitza, 1935ko ...ren 5ean; "j'en avais envoyés quelques-uns à Charles, mais comme il est parti, je préfère te les envoyer de nouveaux", Fabien Dargainsek bidalitako eskutitza, Donibane Lohitzune, abenduaren 20an.

46. Pierre Narbaiz Apaizgaitegi Handiko irakaslea zen.

47. Pierre Narbaizek Lafitteri idatzitako eskutitza, datarik gabe.

48. Ibidem. Hurrengo postal-txartel batean hauxe esan zion Narbaizek Lafitteri: "Koblak ez ditut eskuratu ahal izan, bainan segur niz laster muntatuko dituzula", Narbaizek Lafitteri idatzitako gutuna, datarik gabe.

49. Honako hauek eskutitzez adierazi zuten *Aintzina* jaso nahi zutela: Goyhenechek Parisetik, A. Etcheberryk Angersetik, Jaucine jaunak (propaganda jaso zuen), Justomari Mocoeroak Irunatik, Martin Ilstilartek Qodensactik, Francisco M^o de Berazalucek Donostiatik, Jesús de Basozabalek Mundakatik, Miren de Lopetegui Sondiakatik, Andoni Iralak Bilbotik, Lucio García Echeverriak Gasteiztik, Pierre Puchuluk Ustarizetik, Bernard Insousarryk (Apezgaitegi Txikiko irakaslea), Jose A. Mugicak Logroñotik, Pedro de Olazabalek Donostiatik, Jean Haramborek Baigorritik, Julian Ormaecheak Bilbotik, Dominica Pagolak Lokeitiotik, Francisco Barandiaranek Bilbotik, J. E. Goenagak Bilbotik, Léon Lasallek (*Aintzina* eskatu zuen Aguerrentzat, elizan saltzeko), Eusko Ikaskuntzako Pedro Garmendiak (euren aldizkariarekin truke egiteko), Maria Ariztiak Saratik Bouda jaunaren izenean, J. Abandok Londresetik, Canon-Beholak (propaganda jaso zuen), Etcheparek Atarratzetik, José Aguerrek Irunatik, Jaugueberry doktoreak, Bilbao Nicolasek Donibane Lohitzunetik, Goyhenek Atarratzetik, Mendiondok Atarratzetik, Larramendik Donostiatik, Urrutigaray emakumeak Atarratzetik, Pierre Etcheberryk Mauletik, Jauretchek Baionatik, Jean R. Larrouyetek Parisetik, Gantois bikarioak, Jean Biataranak Baionatik, Dominique Irozek Arneguitik, Michel Diharceek Parisetik, Dupérou emakumeak, Jean Baptistek Iruñatik, J. B. Salaberryk Iruñatik, Jean Velezek, Jacques Navazek, Antoinette Dravasak eta G. Branquet emakumeak.

pour avoir pu penser à tout le monde”⁵⁰; Camile Dargainsen ikuspuntutik emankorra izan zen propaganda hori: “Je pense que cette campagne de publicité portera de fruit”⁵¹. Izan ere, bigarren zenbakia argitaratu zutenean 250 ale utzi behar izan zuten harpidetzetarako eta beste batzuk “de complaisance”⁵². André Ospitali gustatu zitzaion *Aintzina*ren lehenengo zenbakia, baina itxurarekin ez zegoen gustura:

“La seule chose que je regrette est que ce journal ne soit pas mieux présenté. Si j’y avais pensé tôt je t’aurais envoyé quelques modèles qui auraient été sûrement mieux. Mais ceci n’est qu’un simple détail et ne m’empêche pas de beaucoup admirer le grand effort qui vient d’être fait”⁵³.

Goyhenechek ere pozik hartu zuen hilabetekaria: “Tout d’abord, bravo pour *Aintzina*. J’ai en ai reçu les 2 premiers numéros, ils m’ont prodigieusement intéressé”⁵⁴. Amoçaini oso ona irudituz zitzaion urtarreko zenbakia, baina gerokoetan gorabeherak susmatu zituen:

“Ce numéro de Janvier est superbe.. le meilleur que j’ai lu... Les numéros suivants sont très morts. Je m’explique: Il semblerait qu’en Janvier une grande bataille est annoncée sur ‘tout le front’. Puis en Février rien, en Mars rien, etc... Sans doute le travail n’est pas facile, le malheur est que vous devez tout faire. Mais ces jeunes ne comprendront-ils jamais ce qui est leur devoir?. Oui, je dis leur devoir, un devoir de basque et de chrétien”⁵⁵.

Gantois bikarioak, abertzale flamandarren burua zena, *Aintzina* interesgarria zela uste bazuen ere, euskal gaiak gutxiegi lantzen zituela zioen eta gehiegi erbestekoak; *Bulletin des Minorités Nationales en France* (Parti National Bretonek argiturikoa) aldizkarira jo omen zuen euskal mugimenduaren berri izateko⁵⁶:

“La majeure partie du journal, même, n’est-elle pas occupée par des campagnes qui –quoi qu’il en soit de leur valeur, de leur bien-fondé ou de leur opportunité– sont, tout de même, essentiellement étrangères à la ‘question basque’ en tout que telle, même si on y intègre la défense très légitime –vous devinez bien ce que je puis penser là-dessus!– des intérêts religieux. Certains positions, même en cet ordre, sont avant tout “parisiennes / A plus forte raison, dans le domaine de la politique générale. Telle caricature anti-allemande, qui peut être à sa place dans un organe française de Paris, surprend assez dans un journal qui est, de sa nature, basque avant tout, et n’a point, sans doute, d’autre raison d’être”⁵⁷.

Jean Biataranak begi onez ikusten zuen *Aintzina* Euskal Herritik kanpo zegoenei bidaltzea:

“Je ne saurais oublier l’inmense joie qu’il me fournait soit à Bordeaux soit au cours de mon servise militaire ... chaque fois qu’il venait jusqu’à moi. Je sais aussi combien étaient heureux de le lire mes camarades, Bayonnais ou Basques. A ce propos, je me permets de vous signaler que sa présence serait judicieuse à l’Association Catholique des Etudiants à Bordeaux”⁵⁸.

50. Camile Dargainsek idatzitako gutuna, Donibane Lohitzune, 1934ko azaroaren 26an.

51. Ibidem.

52. Ibidem.

53. André Ospitalek bidalitako eskutitza, Aldudes, azaroaren 24an.

54. Eugène Goyhenechek idatzitako gutuna, Paris, 1934ko abenduaren 3an.

55. Pierre Amoçainek Lafitteri idatzitako eskutitza, Santiago de Chile, 1935ko apirilaren 20an hasi eta 1935ko uztailearen 2an amaitutakoa.

56. Jean Marie Gantoisek Pierre Lafitteri idatzitako gutuna, Roncq, 1936ko urriaren 3an.

57. Ibidem.

58. Jean Biataranak Jean Duboscqi idatzitako eskutitza, 1936ko urriaren 20an.

Piarres Lafitte bere eskutitzen bitartez. Euskalzaletasuna Iparraldean pizteko saiakera bat

Jean Biataranak euskal zuzenbideari buruz idatzi zuen *Aintzina*; gai hori lantzeko ikusi zituen oztoporik handiena euskal zuzenbidearen berezitasuna zen, baita iturriak aurkitzeko arazoak eta kanpotik etorritako eragina. Bilatzen zuen helburua: artikulu ulerterrezak eta interresgarriak idaztea irakurleago erakartzeko⁵⁹.

Aldizkari eta egunkari batzuek *Aintzina*ren aurkezpena egin zuten euren orrietan. Donostiako *Argiak* eta Baionako *Eskualdunak*: "Ayant lu dans 'Eskualduna' de Bayonne et 'Argia' de Donosti dans les lettres de Larreko⁶⁰ que vous publiez un journal mensuel basque.." ⁶¹, Bilboko *Euzkadik*: "Gaurko 'Euzkadi'n irakurri dot zelan 'Aintzina' argitaratu dozu-ben"⁶²; Turineko *La Gazzeta del Popolo* euskalzaleei buruz hitz egin zuen: "Ces jours ci a paru dans la Gazzeta del Popolo de Turin un article sur les eskualerristes. Je vous l'enverrait de que je l'aurais reçu"⁶³; *Le Fédéralistek*, Pariseko Foyer d'Etudes Fédéralistes-ek kaleratzen zuen aldizkariak, euskalzaleen egitaraua aurkeztu zuen⁶⁴. Debauvaisek, Parti National Bretoneko buruak, *Bulletin des Minorités de France* kaleratzeko asmoa zuen eta Euskal Herriari buruzko artikulu bat idaztea eskatu zion Goyhenecheri⁶⁵. *Le Réveil Basque Béarnaise*ko idazkaria zen Louis Francek Jean Duboscqi proposatu zion *Aintzina*ren ale bat bidaltzea:

"afin que je puisse en parler dans *Le Réveil basco-bearnais*, qui est, depuis plus de vingt-cinq ans, l'organe des originaires des Basses-Pyrénées à Paris. Si vous voulez bien m'en faire le service régulier à titre gracieux, ce qui constituerait pour vous la mailleur des publicité parisiennes, je vous enverrai en échange le *Réveil basco-béarnais*"⁶⁶.

Louis Francek *Action Régionalisten* irakurri zuen *Aintzina*ren agerpenaz; *Action Régionaliste* Fédération Régionaliste Françaisek kaleratutako aldizkaria zen eta Charles Brun horren ordezkari orokorra. *Aintzina* ere *Action Régionalisten* aurkezpena egin zuen bere orrialdeetan: "M. Charles Brun vous remercie beaucoup de l'aimable citation que vous avez faite de l'*Action Régionaliste* dans *Aintzina*"⁶⁷. *Le Courrier de Bayonne*ko arduradunak, J. de l'Espée, Lafittekin batzartu zen euskalzaleen egitarauari buruz egunkarian hitz

59. Ibidem.

60. Pablo Fermín Irigarai "Larreko" (Auritze, Nafarroa 1869-1949). Hainbat aldizkaritan idatzi zuen: *Euzko-Deya*, *Zeruko Argia*, *Gure Herria* eta *Eskualduna*, etab.

61. Francisco M^e de Berazalucen gutuna, Donostia, 1934ko azaroaren 23an.

62. Jesús de Basozabalek Jean Duboscqi bidalitako gutuna, 1934ko azaroaren 28an.

63. Eugène Goyhenechek Lafitteri idatzitako eskutitza, Paris, 1936ko azaroaren 19an.

64. Eugène Goyhenechek idatzitako eskutitza, Paris, 1934ko maiatzaren 26an.

65. Eugène Goyhenechek Pierre Amoçaini idatzitako eskutitza, Paris, 1934ko abenduaren 3an. Goyheneche Foyer d'Etudes Fédéralistes-en idazkaria izendatu zuten 1934an eta F.E.F.-koek ez zuten begi onez ikusten berak euskalzaleei buruzko artikulurik idaztea; Goyhenechek Amoçaini proposatu zion Piarresek –Piarres Lafitte gure ustez– idazteko eta Debauvaisek emandako abiapuntuak adierazi zizkion: Iparraldeko zein Hegoaldeko Geografia, Historia, hizkuntza eta ohituren laburpena, Iparraldeko orduko egoera eta mugimendu euskalzalearen helburuen aurkezpena; guztira 18 x 24 neurritako artikulua, bi orritan, bi zutabetan eta karakter txikiko hizkiekin idatzirik, lekua utziz euskalzalei buruzko eskutitz labur bat sartzeko, Goyhenechek idatziko zuena; artikulua goitizenez izenpetu behar zuen. Azkenean, *Aintzina*ren lehenengo zenbakian agertu zutenaren arabera, Pierre Amoçainek idatzi zuen artikulu guztia: "Depuis, les Eskualerristes ont pris part en France a plusieurs réunions de jeunes. Au Foyer d'Etudes Fédéralistes de Paris un rapport de notre camarade Pierre Amoçain a été très remarqué: il a été publié dans *Le Fédéraliste* (p. 5)", "Où en sont les eskualerristes?", *Aintzina*, 1934ko urria.

66. Louis Francek Duboscqi bidalitako eskutitza, Paris, 1934ko abenduaren 4an.

67. B. Evènek Fédération Régionaliste Françaiseen izenean idatzitako eskutitza, 1934ko abenduaren 24an.

egiteko⁶⁸. Fred Moyses bretoiariak Lafitteri eskatu zion euskalzaleei buruzko informazioa aldikari holandar baten argitaratzeko⁶⁹; Fred Moyses *Breiz Atao* nazionalista bretoiariak argitaratzen zuten aldizkariaren idazkaria zen eta Yves Delaporteren⁷⁰ aholkuei jarraituz idatzi zion Lafitteri. Eusko Ikaskuntzako Pedro Garmendiak euren aldizkaria eskeini zion euskalzaleei *Aintzinaren* truke⁷¹ eta Madrilen egoitza zuen Eusko Ikasbatza-Agrupacion de Cultura Vascak *Eskual Herriaren Alde* eskatu zion haien egitarauaren truke⁷². Aljeriako Cercle d'Education Socialek *Aintzina* euri bidaltzea eskatu zion⁷³.

4. BEGIRALEAK

Mugimendu euskalzalearen barruan talde berezia antolatu zuten emakumeentzat: Begiraleak. Piarres Lafittek talde honen aurkezpena egin zuen *Aintzina*n, Augusta Larralde goitzenarekin:

"Begiraleak, on le sait, est un groupement féminin régionaliste basque qui a pour but de grouper toutes les bonnes volontés éparses afin de travailler ensemble dans le même but: sauver la foi, notre langue, nos traditions"⁷⁴.

Emakumezkoen taldearen aurkezpena egin zuen ere *La Petite Gironde* egunkarian⁷⁵.

Izan ere, 1933an jadanik batzarrak egin zituzten neska gazteekin:

"Je me rends à Luz dimanche ... le matin. Après diner j'aurai un entretien avec 8 jeunes filles. Je vous prie de donner à Guéarçague de ... un 'petit stock' de cartes d'adhésion pour Emakumees, Guéarçague qui sort demain 24 et vera ma tante et lui remettra les dites cartes"⁷⁶.

Badirudi Hainçuberro emakumeak taldearen partaidea izateko gonbidapena jaso zuela, baina ez zitzaion interesatzen:

"Merci d'avoir pensé à moi pour J.E.L. L'oeuvre que vous entreprenez est sans doute très intéressante, mais je vous avoue franchement qu'elle est au dessus de mon portée. D'ailleurs je crois qu'au debut du moins, les femmes ne nous seront d'aucune utilité; pour ma part, je suis très amie des oeuvres faites et plutôt anti féministes. Je suis contre le vote des femmes, dont je trouve que la place est à la maison et non pas à la décentralisation (administrative sans doute) que vous entreprenez"⁷⁷.

68. J. de l'Espéek Lafitteri idatzitako eskutitza, Baiona, 1936ko otsailaren 1ean. Badago 1938ko apirilaren 6an Pierre Larremendyk Lafitteri idatzitako gutuna, de l'Espeeren izenaren Lafitte bazkaltzera gonbitatzeko: "M. de l'Espée m'a chargé de vous demander si vous voulez lui faire l'.... de venir déjeuner jeudi 28 avril à 12h.30. La même invitation a été faite à Monsieur Lamarque, de S. Louis, et à Monsieur l'Abbé Leon (Léon Lasalle seguraski)", Pierre Larremendyk Lafitteri idatzitako eskutitza, 1938ko apirilaren 6an.

69. Fred Moyses Lafitteri idatzitako eskutitza, 1937ko otsailaren 1ean.

70. Fred Moyses 1937ko otsailaren 1ko eskutitzean Yves Delaporteren aurkezpena egin zion Lafitteri esanez *Peuples et Frontières* idazkariaz arduratzen zela, lehen *Bulletin des Minorités Nationales* deituriko aldizkaria.

71. Pedro Garmendiak Duboscq idatzitako eskutitza, Donostia, 1934ko abenduaren 6an.

72. Andoni Urrestarazuk Pierre Amoçaini bidalitako eskutitza, Madrid, 1934ko otsailaren 3an.

73. Cercle d'Education Socialek bidalitako eskutitza, Algeria, 1936ko abenduaren 8an.

74. 'Augusta Larralde': "Salut", *Aintzina*, 1934ko urria.

75. "Ce matin, dans le journal 'Le Petite Gironde' j'ai lu votre annonce, au sujet du groupement féminin basque, dénommé 'les Gardiennes'", Larrondek 'Augusta Larralde'ri, Lafitteri, idatzitako eskutitza, Baiona, 1934ko abustuaren 24an. *Gure Herriaren* idazkaritzan kokatu zuen Larrondek Augusta Larralde, eskutitzaren idazpuruan irakur daitekeen bezala: "Mlle. Augusta Larralde. Rédaction de 'Gure Herria'. Ustaritz".

76. Pierre Amoçainek idatzitako gutuna, 1933ko azaroaren 23an.

77. Hainçuberrok idatzitako eskutitza, Kanbo, 1933ko urtarrilaren 20an.

Piarres Lafitte bere eskutitzen bitartez. Euskalzaletasuna Iparraldean pizteko saiakera bat

Begiraleak taldeak lan handia egin zuen euskal antzerkia sustatzeko; “des Tableaux” deituriko emanaldiak prestatzen zituzten eta herriz herri joaten ziren jendearean antzezteko. Elise Arramendy taldearen arduraduna zen Donibane Lohitzunen eta Lafitterekin egon zen harremanetan Begiraleen ekintzen prestakuntzan:

“Nous nous sommes souvenues que vous nous aviez proposé de nous faire une conférence avec projections sur les costumes des Basques à travers les âges; et nous avons pensé que ce sujet pouvait être interprété sur le théâtre. Je vous écris ceci dans le cas où vous n'aviez pas encore composé les tableaux de Noël... Nous, nous croyions que la présentation de ces costumes par des j. gens ou j. filles faisant quelques jeux de scène, pendant qu'un ou deux personnages critiqueraient leur toilettes, serait charmante. Comme je vous l'ai déjà dit nous pourrions nous rendre à Ustaritz pour nous entendre, pour voir les costumes”⁷⁸.

Piarres Lafittek Begiraleak taldearen lehenengo propaganda egin bazuen ere ‘Augusta Larralde’ izenpean, Madeleine de Jaureguiberryk hartu zuen laster emakumeak gidatzeko postua, oso emakume bizkorra zena Pierre Amoçainen ustez:

“Le mouvement des Begiraleak est bien parti, elles feront certainement la pie aux jeunes gens. Le malheur à mon avis c'est que les eskualerristes n'est pas à leur tête une personne décidée comme Mademoiselle de Jaureguiberry”⁷⁹.

Mayi Diharce ere partaidea izan zen, Hasparneko arduradun moduan: “Sur le demande de Mlle. de Jaureguiberry je vous envoi 1 article sur les Begirales de Hasparren que vous voudrez bien insérer dans *Aintzina*, votre journal”⁸⁰. Begiraleak taldearen beste arduradun batzuk aipatzen dira eskutitz hauetan: Barucq⁸¹, Bribet eta Guillaume-Reicher.

ONDORIO GISA

Eskutitzok pertsonaia hauen berri eman digute, neurri ezberdinean lotura izan zutenak Iparraldeko talde euskalzaletarekin: Aitzol, Altabegoity⁸², Henriette Amoçain⁸³, Pierre Amoçain, ApesteGuy⁸⁴, Philippe Aranart, Arocena, Elise Arramendy, Barucq emakumea,

78. Elise Arramendyk Lafitteri idatzitako gutuna, Donibane Lohitzune, urtarrilaren 19an.

79. Pierre Amoçainek Lafitteri idatzitako gutuna, Santiago de Chile, 1935ko apirilaren 20an hasi eta 1935ko uztailaren 2an amaitu zuen eskutitza.

80. Mayi Diharcek idatzitako eskutitza, Hasparne, urtarrilaren 2an.

81. Fabien Dargainek Barucq emakumearen bidez bidali zuen *Aintzina* argitaratzeko egin zuen presuposua; Fabien Dargainek bidalitako eskutitza, Donibane Lohitzune, 1934ko ekainaren 10ean. Pierre Amoçainek ere Barucq emakumearen bidez bidali zion Lafitteri Txiletik idatzi zion eskutitza: “C'est Mademoiselle Baruc que je charge de vous faire parvenir ces pages. Pour les raisons que vous connaissez il ne convient pas en effet que cette lettre passe par la porte d'Ustaritz en votre nom... Evitons la publicité gratuite.. c'est celle qui coûte cher”, Amoçainek Lafitteri bidalitako gutuna, Santiago de Chile, 1935ko apirilaren 20an hasi eta 1935ko uztailaren 2an amaitutakoa.

82. André Ospitalek Amoçaini bidalitako eskutitza, Aldudetik: “Alta (Altabegoity) bi letra igorri dazkot eta cartagno bat urthaz etako”.

83. “Henriette sympathise avec le mouvement, mais je doute qu'elle veuille faire quelque chose... J'aurais plaisir à apprendre que vous avez causé personnellement et franchement avec ma soeur qui a besoin de quelque conseils et de bonnes amies qu'elle trouverait sans nul doute dans le mouvement eskualerriste féminin”, Amoçainek Lafitteri bidalitako gutuna, Santiago de Chile, 1935ko apirilaren 20an hasi eta 1935ko uztailaren 2an amaitutakoa

84. Goyhenechek Amoçaini hitz egin zion ApesteGuyri buruz: “Je compte aussi me mettre en rapports avec ApesteGuy du *Jour* qui écrit des romans aussi dégoûtants qu'idiots, mais qui pourra peut être servir à quelque chose”, Eugène Goyhenechek Amoçaini bidalitako eskutitza, Paris, 1934ko abenduaren 3an.

Karl Bouda⁸⁵, Charles Brun, Gaëtan Bernouville⁸⁶, Bribet emakumea, Jean Biatarana, Blainville, Jean Pierre Casabonne, Chapelet, Bernard de Corral, Fabien Dargains, Camille Dargains, Yves Delaporte (Parti National Bretoneko arduraduna), Debauvais (Parti National Bretoneko burua)⁸⁷, Maddie Diharce, Michel Diharce, Jean Duboscq, De l'Espée (*Le Courrier de Bayonne*ko arduraduna), Jean Etxepare medikua⁸⁸, Jean Marie Gantois (flandriar abertzaleen burua), Eugène Goyheneche, Guillaume-Reicher emakumea⁸⁹, Hainçuberro emakumea, Jean Hastoy⁹⁰, Pierre Héguy, Charles Hiribarren, Jean de Jaureguiberry, Madeleine de Jaureguiberry, Piarres Lafitte, Léon Lassalle, Mathieu monsignorea⁹¹, G. Mendiboure, Jacques Mestelan, Fred Moyse (*Breiz Atao*n idazkidea), Pierre Narbaiz, Maurice Olphe Galliard, Olhagaray andrea, André Ospital, Félix Ospital, Charles Péguy⁹², Jean Richter, Daniel Rops⁹³, Jean Roumanes (okzitaniarra, *Le Fédéralisten* arduraduna)⁹⁴, German Saint Martin⁹⁵, Felipe de Tolosa, Jean Pierre Urricariet⁹⁶, Vergez abadea⁹⁷.

85. Marie Ariztiak bidalitako eskutitza, Sara, 1934ko abenduaren 28an. Karl Bouda alemaniarra Berlin eta Erlagenen izan zen irakaslea Kaukasotako eta euskera hizkuntzak irakatsiz. Eugène Goyhenechearen laguna zen.

86. Gaëtan Bernouville *Elgar*. *Journal des basques de Paris* aldizkarian idazten zuen. Eugène Goyhenechek Amoçaini bidalitako eskutitz baten adierazi zion Gaëtan Bernouville ikusi zuela, *La Pressen* idazten zuela eta prest zegoela euskal-zalei laguntza eskeintzeko Parisen; Eugène Goyhenechek Amoçaini bidalitako eskutitza, Paris, 1934ko abenduaren 3an.

87. Debauvais Parti National Bretoneko burua zen eta *Bulletin des Minorités de France* kaleratzeko asmoa zuen partidu nazionalista edo regionalistak elkartzeko; Korsika, Alsazia eta Flandeseakoekin harremanetan zegoen eta Goyhenecheri eskatu zion Euskal Herriari buruzko artikulu bat idazteko; Eugène Goyhenechek Amoçaini bidalitako gutuna, Paris, 1934ko abenduaren 3an.

88. "La morte du Docteur Etchepare m'a surpris et peiné. Un grand collaborateur de *Gure-Herria* qui s'en est allé. Un grand basque qui sans faire de bruit aura apporté à la cause basque et surtout à la littérature de nouvelles richesses", Amoçainek Lafitteri bidalitako gutuna, Santiago de Chile, 1935ko apirilaren 20an hasi eta 1935ko uztailaren 2an amaitutakoa.

89. Eugène Goyhenechek Lafitteri idatzitako gutuna, Paris, 1936ko azaroaren 19an.

90. Jean Hastoy *Aintzina* banatzeaz arduratu zen hasieran, baina propaganda egitera murriztu zuen gero bere ekintzak lanpeturik zegoelako: "J'ai fait ce travail.. une première fois, mais je tiens à que soit aussi la dernière, étant donné que je suis ici dans les pires conditions matérielles pour m'en charger..., avec des préoccupations plein la tête, cinéma paroissial, correspondance de la *Liber... du Sud-Ouest*, etc., etc... outre mon travail de tous les jours, commerce et comptabilité! Donc, plus rien de cela; toute autre chose, oui, insignes, n° de propagande, etc..., oui", Jean Hastoyk idatzitako eskutitza 1935an.

91. Amoçainek Lafitteri bidalitako gutuna, Santiago de Chile, 1935ko apirilaren 20an hasi eta 1935ko uztailaren 2an amaitutakoa.

92. Amoçainek Lafitteri Péguy idazlea aipatu zion: "Il me semble que Daniel Rops cite souvent ces mots de Péguy: 'La Révolution sera sociale ou elle ne sera pas'", Amoçainek Lafitteri bidalitako gutuna, Santiago de Chile, 1935ko apirilaren 20an hasi eta 1935ko uztailaren 2an amaitutakoa. Marcel Péguy, Charlesen semea, liburutegi baten burua zen eta bertan ezarri zuten Le Foyer d'Etudes Fédéralistesen egoitza.

93. Amoçainek Lafitteri Daniel Rops aipatu zion, Santiago 1935ko apirilaren 20an hasi eta 1935ko uztailaren 2an amaitu zuen eskutitzan. Henri Daniel Rops 'Ordre Nouveau' taldearen partaidea izan zen; pertsonalismoan oinarritzen ziren eta *Ordre Nouveau* eta *Espirit* aldizkariak argitaratzen zituzten.

94. Jean Roumanesek artikulu bat eskatu zion Goyhenecheri, euskal-zaleei buruz, *Le Fédéralisten* (Foyer d'Etudes Fédéralistes-en aldizkaria) argitaratzeko; Eugène Goyhenechek idatzitako eskutitza, Paris 1934ko maiatzaren 26an.

95. German Saint Martinek Lekorneko gazteriarren izenean idatzi zion Lafitteri pilotaren inguruan elkarte bat eratzea erabaki zutelako eta Lafitteren laguntza behar zutelako, German Saint Martinen lau eskutitz dago Lafitteri zuzendurikoak: Lekorne, 1936ko martxoaren 5ean, martxoaren 19an, ekainaren 8an eta urriaren 26an.

96. André Ospitalek Amoçaini Aldudesetik bidalitako eskutitz baten bidez Amoçain gonbidapen bat egin zion Urricariet apezaren partez.

97. "J'ai pensé que Monsieur l'Abbé Vergez pourrait me donner ces renseignements... mais je n'ai jamais osé lui écrire. Il doit avoir des livres de chimie et pourra certainement vous donner quelques indications", Amoçainek Lafitteri bidalitako gutuna, Santiago de Chile, 1935ko apirilaren 20an hasi eta 1935ko uztailaren 2an amaitutakoa.

Eskutitzetan gehiago edo gutxiago aipatua izatea erlaziozaturik dago taldearen barruan izandako zereginaren garrantziarekin; gidatze lanean aritu zirenek besteek baino gutun gehiago jaso zuten. Horrela, Jean Duboscqek aldizkariaren gerentea zen bezala, eskutitz kopuru handiena jaso zuen; Lafitte, Amoçain eta Charles Hiribarreni ere gutunak bidali zizkieten, Lafitteri taldea eratu zuelako, Amoçaini propagandaren lehenengo pausuk burutu izate-agaitik eta Charles Hiribarreni Jean Duboscquen laguntzailea izan zelako.

Bestetik, gutunetan taldekideak aipatzen zituzten; horrek erakusten du idazten zuenaren lagunak zirela edo esanguratsuak zirela taldearen barruan. Adibidez, Jean Pierre Casabonnek Pierre Amoçaini eskatu zion Eugène Goyhenecheren helbidea⁹⁸ berarekin harremanetan jartzeko. Goyhenechek Amoçaini idatzitako eskutitz baten goraintziak bidali zizkion Piarresentzat –Piarres Lafitte dela suposatzen dugu–, Philippentzat –Philippe Aranart– eta Jean Duboscquentzat⁹⁹; Lafitteri bidalitako beste gutun baten Jacques Mestelan eta Guillaume-Reicheren helbideak eskatu zizkion¹⁰⁰. André Ospitalek harriturik zegoen Casabonnek idatzi ez ziolako baina Altabegoityk idatzi egin zion¹⁰¹. Jacques Mestelane Amoçaini eskatu zion *Vie Catholiquen* agerturiko artikulua bat, Lafittek gomendatu baitzion¹⁰²; Amoçaini adierazi zion ere *Aintzina* Jean Richteri bidaltzeko. Badago Mentelane Amoçaini zuzenduriko beste eskutitz bat non agertu zion ez zuela Goyheneche ikusi ordurako¹⁰³. Michel Diharce Goyheneche ikusi zuela eta Euskal Ikasleen Biltzarran berriro ikustea espero zuela adierazi zuen¹⁰⁴. Pierre Amoçainek Lafitteri zuzenduriko gutun baten Olphe Galliardekin egon zela adierazi zion¹⁰⁵ eta Txiletik idatzi zion eskutitzean gorantziak bidali zituen Jaureguiberry familia, Olhagaray emakumea, Lasalle, Aranart eta Mestelaneztzat (“en qui j'ai toute confiance”¹⁰⁶) eta gutuna eurei erakusteko esan zion Lafitteri¹⁰⁷.

Ikusten dugu, beraz, azkenengo lerro hauetan zein testu guztian zehar, aipatuena direla: Piarres Lafitte, Pierre Amoçain, Jean Duboscq, Eugène Goyheneche, Philippe Aranart, Jacques Mestelan, Maurice Olphe Galliard eta Madelaine de Jaureguiberry eta Barucq emakumea; Lafitte, Amoçain eta Duboscq azaldu dugu jadanik zergaitik, Eugène Goyheneche Pariseko euskal-ekintzen bultzatzaile bezala bilatzen zutelako, Jacques Mestelan adoretu ibili zelako euskalzaileen mugimendua hedatzen, Philippe Aranart Ustaritzeko Apaizgaitegi Txikiko irakaslea zelako Lafittekin batera, eta kontutuan hartzekoa erabakiak hartu orduko, eta Madelaine de Jaureguiberry eta Baruc emakumeak Begiraleak taldearen arduradun bezala ari izan zirelako; Maurice Olphe Galliard dagokionez, Amoçainek miresten zuen eta sarritan aipatzen zion Lafitteri¹⁰⁸.

98. Casabonnek Amoçaini idatzitako eskutitza, Donazarre, 1933ko apirilaren 25ean.

99. Eugène Goyhenechek Amoçaini bidalitako gutuna, Paris, 1934ko abenduaren 3an.

100. Goyhenechek Lafitteri idatzitako gutuna, Paris, 1936ko azaroaren 19an.

101. André Ospitalek bidalitako eskutitza, Aldudes, azaroaren 21ean.

102. Jacques Mestelane Amoçaini bidalitako eskutitza, Ustaritze.

103. Mestelane Amoçaini idatzitako gutuna, Paris.

104. Michel Diharce idatzitako eskutitza, Paris, 1934ko otsailaren 5ean.

105. Amoçainek Lafitteri idatzitako eskutitza, Baiona, irailaren 14an.

106. Pierre Amoçainek Lafitteri idatzitako gutuna, Santiago de Txile, 1935ko apirilaren 20an hasi eta 1935ko uztailaren 2an amaitutakoa.

107. Ibidem.

108. "Comme j'étais fatigué de voir du cinéma, Hargons m'a dit un jour allons voir la troupe d'Alejandro Flores. Seule troupe qui fait du bon théâtre à Santiago. Un des meilleurs acteurs de Sud-America. Vous n'avouerez que les artistes sont rares dans ces pays!! Alejandro Flores ressemble beaucoup à Olphe-Galliard et joue admirablement bien ainsi que les compagnons", Ibidem.

Euskalzaleek burutu zuten batzarretan ideia desberdinak landu zituzten: Casabonnetzat egokia zen Hegoaldekoekin elkartzea, Felix Ospitalek Frantziako eskuindar guztiek in batasuna beharrezko ikusi zuen eta Pierre Narbaizek proposatu zuen *Aintzina* hilbetekaria erabilgarria izan zedin bikarioentzat. Bakarrik hiru eritzi hauek, gehiago eta era desberdinetakoak egongo baziren ere, taldearen ideologiaren ardatzak erakusten dizkigute: Talde abertzale, kristau eta eskuindarra osatuko zuten. Hala ere, eratzear zegoela, partaide batzuek utzi behar izan zuten euskalzale bezala publikoki agertzeari, Pierre Amoçain eta Ospital anaiak guk dakigunez, politika frantziarraren pentsamoldearekin bat ez etortzeagaitik.

Ikusi dugun bezala, liburuxka eta aldizkari bat argitaratu zituzten euren pentsabidea ezagutarazteko eta euskal kulturaren inguruan egiten ziren bileretara eraman zituzten saltzeko –Eskualzaleen Biltzarra, Euskal Ikasleen Biltzarra–, hori baitzen aukera egokia eta bakarra taldearen propaganda egiteko. Herri minoritarioen inguruan sorturiko elkarteetan ere abegi ona eskeini zioten euskal mugimenduari, hala nola Foyer d'Etudes Fédéralisten, Parti National Bretonen eta Fédération Régionaliste Française, baita aldizkari eta egunkari batzuek mugimenduaren aurkezpena egin euren orrialdeetan: *Argia*, *Euzkadi*, *Le Réveil Basque-Béarnais*, *La Press du Sud Ouest*, *Le Courrier de Bayonne*, *La Petite Gironde* eta *Gazzeta del Popolo de Turin*.

Amaitzeko, eskutitz hauetatik ondorio simple baina zehatza ateratzen dugu, aurretik genekiena zihurtatzeko baino ez bada ere:

Piarres Lafittek abertzaletasuna eta kristautasunean oinarritutako talde politiko bat eratu nahi izan zuen eta asmo hori gorpuzteko gogaide batzuegana jo zuen, batzuk Apaizgaitegi Txikian bere ikasle izandakoak (Pierre Amoçain, Michel Diharce, Jacques Mestelan, Jean Hastoy). Hala ere, politikan sartzeko lehenengo egitasmoa murriztu behar izan zuten eta aldizkari bat kaleratzea eta euskal kultura bultzatzea izan ziren burutu zituzten ekintza bakar-rak. Eskutitz hauek erakusten dutenari jarraituz, politika frantsesaren zentralismoa eta mugimenduaren partaide batzuren geldotasuna¹⁰⁹ izan ziren murriztapen honen zioak.

BIBLIOGRAFIA

- Díaz Noci, J., *Euskarazko aldizkari, egutegi eta almanaken errolda (1834-1959)*, Eusko Ikaskuntza, 1994
- Goihenetche, M., "Idéologies culturelles et espace social en Pays Basque de France à la vieille de la première guerre mondiale", *La production social des espaces*, C.N.R.S
- Haritschelhar, J. (dir), "Hommage à Pierre Lafitte", *Bulletin du Musée Basque*, 1986
- Jacob, J. E., *Hills of Conflict. Basque Nationalism in France*, University of Nevada, 1994
- Larronde J. C., *Eskualerri-zaleen Biltzarra (1932-1937). Eskualerrizaleen mugimendu abertzalearen sorrzea Iparaldean*, Sabino Arana Kultur Elkargoa, 1994.
- López Adan, E., "Ipar Euskal Herria: 150 urte historiari gabe (1789-1934)", *Saioak*, 1978, 2. zkia.
- Malherbe, J. P., *Le nationalisme basque en France (1933-1976)*, 3. zikloko tesia, Gizarte Zientzien Unibertsitatea, Toulouse I, 1977

109. Germain Saint Martinek hauxe adierazi zion Lafitteri 1936ko ekainaren 8an idatzitako eskutitz baten: "Barkhatuko dautazu éni ére ez léhénago arrapostua éginik; badakizu yada zoin hotsak giren Eskualdunak iskribatzen lotzékó, hotzak éré Eskualdunagoarendako, zéren esdugun deusik éguin nahi horren beirazékó, hotzak éré Politikaren égiteko edo beldurrez édo hérabez".